



**Bilboko
Elizbarrutia**
DIÓCESIS DE BILBAO

**JESUSEN
TALDEA
GARA**

C SAIOA
ETXEAN, FAMILIAN EGITEKO

Delegación de Anuncio y Catequesis
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza

**JESUSEN TALDEA GARA
"ETORRI ETA JARRAITU NIRE
ATZETIK" (Mk 1,17)**

1. Helburua

- Jesusek bere taldekide izateko banan-banan deitzen gaituela antzeman.

2. Edukiak

- KATEKESIA ALDERDIA. 2. helburua, "Jainkoa Aita sortzaile bezala, Jesus Semea gurekin eta gaur lagun egiten digun eta jardunean ari den Espiritua".
- HITZA ETA OTOIZA ALDERDIA. 1. helburua, "Oinarrizko otoitzak (gurutzearen seinalea) ikasi".
- ELKARTEA ALDERDIA. 1. helburua, "Katekesiko taldea, topagunea".
- BIHOTZ-BERRITZEA ALDERDIA. 1. helburua, "Jesusen jarraitzaile izaten ikasi".

3. Saioa

- C saioa etxean, familian egiteko.

4. Aurkituko duzuna

- Motibazioa: ideia nagusiak.
- Jainkoaren Hitza, txatala.
- Abestia / ipuina / bideoa.
- Saiaren garapeneko jarduera eta azalpen zehatza.
- Bilketa eta laburpena egiteko proposamena.
- Ezinbesteko lagungarriak.

C Sasoi Etxean, familia egiteko



Motibazioa

- Jesusek **geure izenez** deitzen gaitu.
- Jesusek guraso eta seme-alabok deitzen gaitu, askotariko uneetan eta askotariko bideetatik,
- bizitzan zehar



Saioaren garapena begi-kolpe batean

Jaingoaren Hitza, txatal argitzailea

"Jesusek, Galileako aintzira-bazterrean zehar zihoala, Simon eta honen anaia Andres ikusi zituen sareak uretara botatzen, arrantzaleak baitziren.

Jesusek esan zien: «Zatozte nirekin eta giza arrantzale egingo zaituztet». Haiek, besterik gabe, sareak utzi eta jarraitu egin zioten.

"Zure Lehen Biblia, Giltza, pág. 324

"Orduan Jaunak dei egin zion:

-Samuel!

-Hemen nauzu! -erantzun zuen".

(1 Sam 3-4)

Abestia /Ipuina / Bideoa

- "Gurutzearen seinalea eta Hirutasunaren dantza" (Unai Quiros).


Egin klik
irudiaren
gainean bideoa
ikusteko



<https://www.youtube.com/watch?v=dI01EGLOkmc>

Jarduera

- Jesusen taldearen sarea josi.
- Gurutzearen seinalea.



Bilketa eta laburpena egiteko proposamena

- Gustuko duzue besteek zuon izenez deitzea...? Zergatik? Haurrek hitz egin dezatela.
- Hain zuzen ere, maite gaituztenek badakite gure izena eta geure izenez deitzen gaituzte.
- Goizean esnatzean, amak edo aitak geure izenez deitzen gaitu.
- Elkarrekin gaudenean, adiskideek geure izenez deitzen gaituzte.
- Amama, osaba edo aitak telefonoz hots egiten dutenean eta gutaz galdetu, geure izenez deitzen gaituzte.
- Badakizue zergatik...? Jakina, maite gaituzte..., gutaz arduratzen dira..., geure izena dakite...



Saiorako gida

Familiarentzat...



Lehen unea. Jarraibideak etxean elkarrizketan jarduteko

- Guraso eta haurrok parrokian egindakoa batera jarriko dugu. Zer egin genuen? Nola sentitu ginen? Gustuko izan genuen? Zer izan zen zailena?
- **Talde berezia gara, Jesusen taldea.** Bertan, batera jar ditzakegu ideia eta iritziak, esperientzia eta jarduerak. Gutariko bakoitza trebeagoa da gauza batean edo bestean, esate baterako, jaki gustukoak prestatzen, edo kolore bat bestea baino gehiago gustatzen zaigu, edo biziki gustuko dugun jardueraren bat dugu... Talde honetan, ezinbestekoa da denon ekarpena, bakoitzak duen onena ematea. Horregatik, interesgarria da elkar ezagutzea, egunetik egunera adiskidetasunean haz gaitezen.
- Denboraldi honetan, astia hartuko dugu gure alaba edo semearekin bere gustuez, zaletasunez eta trebetasunez hitz egiteko. Une honetan, erantzun familia bezala ondorengo galderari: Zer ematen dio kide bakoitzak familiaren taldeari?



Bigarren unea. Etxean egin eta katekesiko hurrengo bilerara ekartzeko jardura

- Marraztu pertsona baten silueta eta haurrak idatz ditzala bertan bere zaletasunak, trebetasunak, gustuak (behean agertzen denaz balia zaitezke).

Silueta ebaki ahal izateko



Hirugarren unea: otoitzaldia familian.

Une honetan, familian otoitz egingo dugu. Horretarako, ondoren, hona hemen gai bakoitzean errepikatu eta eguneratu egingo dan hainbat urrats. Bizi ezazue esperientzia hau zuen seme eta alabekin, *"ibiliz ikasten baita ibiltzen"*.

"Egunean zehar, zein unetan gauden denok ikusi eta orduan bildu". Ez da erraza izaten, baina seguru aurkituko duguna, egunean... edo astean, 10-15 minutuko tartea elkartu eta otoitz egiteko.

"Musika apur bat". Itzali etxeko tramankulu zaratatsu guztiak eta lasaitzen, abiadura moteltzen lagunduko digun musika jarri.

"Isilunea". Etxea isilik, zaratarik gabe dugula, isiltasuna 'entzuteko', dena itzalita dagoenean zer entzuten den jakiteko, aukera izango dugu.

"Geure buruaren barrualdera begiratu". Geure burua aztertuko dugu nola sentitzen garen ikusteko: alai, triste, baikor, ezkor, amorratuta, sututa, esker oneko... eta besteen aurrean batera jarriko dugu.

"Eta elkarrekin...". Unai Quirosen *"La señal de la Cruz"* abestia entzungo dugu. Lehenik eta behin, entzun egingo dugu eta, ondoren, zeinuez lagunduz abes dezakegu. Horrela, apurka-apurka, gurutzearen seinalea egiten ikasiko dugu eta bere esanahiaz jabetuko gara.

**Egin klik
irudiaren
gainean bideoa
ikusteko**



Eta bazkalaurretik edo oheratzean, gurutzearen seinalea egingo dugu, familian ere Jainkoarekin bat egiteko eremuak sortuz.

"Jainkoari kontatuko diogu". Eskerrak emango dizkiogu Jainkoari ekin berri dugun esperientzia honengatik: Jesusen adiskide eta jarraitzaile izaten ikasi.

"Arnasa hartu". Berriz ere, isiltasuna "entzun" egingo dugu. Une batez arnasa patxadaz hartu eta, ondoren, ohiko gauzetara itzuliko gara.

Gure denbora husteak, geldiunea egin eta pentsatzeak, geure barrualdera begiratzeak, une batez Jainkoarengan pentsatzeko aukera ematen digu. Eta harrigarria da, Nazareteko Jesusen Jainkoarekin bat egin ondoren, bizitza, egunerokoa, beti desberdina dela egiaztatzea.